

UDALAREN WEB ORRIETAN .EUS DOMEINUA

Gizarteratu da, dagoeneko, puntu.eus domeinua.

Euskararen normalizaziorako inguruan ditugun baliabide eta tresna guztiak baliatu behar ditugula uste dugulako, puntu.eus domeinua gizarteratzen laguntzea ere bada herri-erakundeen eginbeharra.

Bestetik, euskaldunen komunitatea trinkotzea ezinbesteko pausua da hizkuntzaren erabilera areagotzeko. Azken inkesten arabera, euskaldun kopuru altuena hiri handietan dago eta horrek zailtasun handiagoak sortzen ditu euskaldunen arteko harremanak sendotzeko garaian, populazioa handiagoa delako eta sakabanaketa ere, handiagoa izan daitekeelako.

Hori horrela, puntu.eus domeinuak lagunduko du, zalantzarik gabe, bai komunitate birtuala, baita errealak ere, elkartzen, are gehiago, sare sozial deritzotenak hartu duten indarra ikusita.

Horregatik, norbanakoen lanaz gain, erakunde publiko eta pribatuek ere beren aletxoak jarri behar dutela uste dugu.

Prozesu horren abiarazte-aldia datorren irailaren 16tik azaroaren 18ra izango da. Denbora tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatuko dira, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere.

Horregatik guztiagatik, Lasarte Oriako udala izanda, herritar guztien gertueneko administrazioa, honako hau eskatzen diogu Udaleko Osoko Bilkurari

- 1.- Udalaren domeinua, .EUS domeinu bezala erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko urrats guztiak eman ditzala onartzea, hartara, Euskararen Egunerako aktibatuta egon dadin.
- 2.- Herriko partikular, zein enpresak ere anima ditzala .EUS domeinura bihur ditzaten beren domeinuak.